



IRUSXU 20, 2004-7-23
457 zk.
A 2041

Hura bidaiia

Lau egun igaro zituen Elena Arzak sukaldariak New York hirian 2003ko otsailean. Elenarekin batera, Peio Aranburu eta Igor Zalakain lankideak joan ziren AEBetara. Hirukotea bazkari bat prestazera joan zen New Yorkera, baina astia izan zuen hamaika jatetxetan bapo bazkaldu eta afaltzeko. Hirukoteak ederki pasa zuen, sekulako hotza egiten bazuen ere. Argazkian, Times Square plazan ditugu. Elenaren atzean, ezkerretik hasita, Arzak jatetxeko ikerkuntza saileko buru Igor Zalakain, AEBetan lanean dabilen Jose Ramon Andres sukaldari espainiarra eta Arzak jatetxeko sukaldaritzako buru Peio Aranburu ditugu.



Eguraldia

Lainok ager daitezkeen arren, edukia izengo da nagusi gurean. Baita urte batean eta baita joan denak ere. Tenperatura udagokionez 30 graduren bueltan ibiliko gara hurrengo aste ko erdialdera arte, ordu berez. Ura, bestalde, epele-epelatu duen 21 gradu.

Bisitariak mintzo



Mukesh eta Emily

Zer iruditzen zaizue Donostia?

Izugarriz gustatu zaigu. Pentsa, etxera bueltatu aurretik, gure buruan hona itzuli behar dugula agindu diogul. Pa-sealeku berrira zoragarrak da, eta kate erlazatzeko txoko ezin aproposagoa. Gainera, ederki jaten da hemen, de-zente gizenak gara. Hegaluzea pipe-rrekin izan da ahozatu dugun pintxo-rik gozoena.

Antzekotasunik sumatu al duzue Donostia eta San Frantzisko artean?

San Frantzisko, Kaliforniako iparraldean dago, eta hango eguraldia hemen goaren antzekoa da. Hori bai, hemen bainatu gara eta ura epelagoa da Donostian gurean baino.

Ezer faltan bota al duzue gurean?

Bai, tren geltokia itzasi ginenean, la-guntza falta igarri genuen. Ez gene-kien mailetekin inolara jo. Bestalde, Er-dialdean supermerkatu bat egin be-hariko luketel.

Hiri merkea ala garestia da Donostia?

Ez bata, ez bestea. Parisen egon gara, hona etorri aurretik, eta askoz gares-tiagoa da.

Kresal usaina

1932tik boleibolean

Ia-ia paisaiaren zati bilakatu dira Kontxan boleibolean jokatzen duten Eguzkiko lagunak. Noiz hasi ziren jokatzen? Bada, 1932. urte inguruan. Elkarteko kide batek AEBetara egin-dako bidaiia batean izan omen zuen hondartzako bolearen berri, eta Donostiara bueltatu eta gero, hasi zen boleibo-lean Kontxan jokatzen Eguzkiko lagunekin.



Eta pedalontziak?

Urte luzez pedalontziak Ondarretako hondar-tzan egon ziren alokagai. Duela hiru urte, bai-na, pedalontziez arduratzen zen enpresak zer-bitzua emateari utzi zion; dirua galtzen zuela

argudiatuz. Hurrengo udan, Udalak piraguak jarri zituen Ondarretan. Berrikuntzak harrera ona izan zuela ikusirik, piraguekin jarraitzea eta pedalontziak ahaztea erabaki zuen Udalak. Aurten, lehen aldiz, Kontxan ere jarri dituzte piraguak-iaz arte pirautxoak besterik ez zeuden-.

Ligatzeko teknika berriak?

Asteartean, Kontxako sorosleei gerturatu zitzaizkien neska bat, intsektu batek gorputzaren atal ezkutu batean -bai, bai irakurle, pentsa-tzen ari zaren leku horretan- ziztatu ziola esanez. Dorretxean zeuden mutilek lankide batek neska batek- artatuko zuela esan zioten. Horrek, baina, ez omen zion grazia handirik egin sorosleengan joandako neskeri. Deigarriena da, inondik ere, neska artatu zuen sorosleak ez zuela ziztadaren arrastorik aurkitu. Intsek-tuen ziztadana, ligatzeko teknika berria ote?